

ENJOY ENGLISH 2016 TXANTXIKU IKASTOLAN

Oñatin, 2016ko otsailaren 26an

GURASOEI:

SARRERA	Uztailerako antolatzen diren eskolaz kanpoko jardueren artean, Txantxiku Ikastolak, , hogeita batgarrenez, "Enjoy English" programa eskainiko du. Programa horren helburuak ondorengoak dira: * Testuinguru berri batean ingelesa lantzea. * Oinarrizko konpetentziak garatzea: ikasten eta pentsatzen ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi eta egiten eta ekiten ikasi.
ZER DA ENJOY ENGLISH PROGRAMA	Txantxiku Ikastolak bere ikasleei eskaintzen dien ingeleseko ikastaro berezi hau eleaniztasun planteamenduaren proiektu osagarri bezala aurkeztzen da. Ikastolen Elkartearen gidaritzapean antolatzen den Enjoy English programa hainbat jardueraz osatuta dago, urtero berritzen direnak.
NON EGINGO DA IKASTAROA	Txantxiku Ikastolan bertan.
NOIZ IZANGO DA	Ekainaren 27tik uztailaren 22ra
ORDUTEGIA	09:00etatik 13:00etara. Programa honetan izena ematen dutenek ikastolako JANTOKI ZERBITZUA erabiltzeko aukera izango dute.
NORK EMANGO DU IKASTAROA	Jatorrizko hiztunak arituko dira begirale lanetan eta programa ingeleseko irakasle batek koordinatuko du.
TALDEAK	Bi talde egingo dira: A) Haur Hezkuntzako 5 urte eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. Mailak:11/13 ikasle taldeko. B) Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. Mailak:13/15 ikasle taldeko. Ikasleen banaketa eta taldeen osaketa Ikastolen Elkartearen esku dago. Taldeak izen-ematearen arabera osatuko dira, eta izenak eman ahala taldeak betetzen joango dira. Azken taldeak gutxieneko ikasle kopurua baino gutxiago izango balu, haur horiek itxaron zerrendan geratuko lirateke, eta bajaren bat izanez gero programan sartzeko aukera izango lukete. Bajarik egon ezean, ordea, ikasle horiek kanpoan geratuko lirateke.
PROGRAMAREN PREZIOA	290 € OHARRAK: • Programak irauten duen bitartean monitore bat edo gehiago zuen etxean jasotzeko aukera izango duzue. Kasu horretan, eta horren truke, ez zenukete ordaindu beharko zuen seme/alabaren matrikula, hau da, programaren prezioa. • Zaintza zerbitzuko erabiltzailea izanez gero eta Enjoy English programan parte hartuko duenari, uztailleko erreziboan Zaintza zerbitzuari %50eko hoberia aplikatuko zaio. • Ikasturte honetan ere 8:00etatik 9:00etara harrera zerbitzua eskainiko dugu INGELESEZ. Gutxienez 5 pertsonak eman beharko dute izena eta ordaindu beharreko kuota 40€koa izango da.
ORDAINKETA	Kontu korrontearen bidez kobratuko da: • %50 maiatzeko erreziboan, eta • %50 ekaineko erreziboan.
OHAR GARRANTZITSUA	Programa honen antolatzailea Ikastolen Elkartea da eta bertako teknikoek aditzera eman digutenez, ezinbestekoa da monitoreen egonaldia familietan izatea. Beraz, "Enjoy English" ikastarora ez da antolatuko baldintza hori ez bada betetzen.
Zuen seme/alabak programan parte hartzea nahi baduzue, bere izena emateko dei ezazue Ikastolako Idazkaritzara. IZENA EMATEKO EPEA APIRILAREN 15ean BUKATUKO DA.	

Informazio gehiago nahi izanez gero, jar zaitezketen harremanetan Ander Arkauz edo Ane Miren Idoiagarekin (☎ 943-781204). Besterik gabe har ezazue gure agurra,

TXANTXIKU IKASTOLA